



"Beste ekonomia bat martxan dago" V. jardunaldiak

2018ko martxoaren 9a eta 10a

Medialab-Prado en la Calle de la Alameda, 15, 28014 Madrid

[Mapa](#)

Ikasleentzako gida

Norentzat

Jardunaldiak ekonomialarientzat eta etorkizuneko ekonomialarientzat dira bereziki, baina edozein pertsona joan daiteke.

Guztira 150 pertsonak parte hartu ahal izango dute aurrez aurre, eta plaza horietako 60 unibertsitateko ikasleentzat soilik izango dira. Gainera, 40 beka emango dira ostaturako eta bidaietarako, baina soilik unibertsitateko ikasleei.

UNED izapideak egiten ari da, jardunaldietan parte hartzeagatik aukera askeko 3 kreditu edo 1,5 ETCS kreditu eman daitezen. UNEDeko kredituek eta beste edozein unibertsitate publikotan emandakoek balio berbera dute, baliozkotu behar izanez gero.

Gida hau kredituak baliozkotzea eskatu nahi duten ikasleentzat da, eta/edo, jardunaldietan parte hartzearren, joan-etorriak eta ostatu-gastuak finantzatzeko bekak eskatu nahi dituzten ikasleentzat ere bai.

Izena emateko bete beharrekoak

Plaza-kopurua mugatua denez, baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak hautatuko dira, lehentasunez:

- Unibertsitateko ikasketen azken urtean matrikulatuta egotea edo jardunaldi hauetako gaiekin zerikusia duten graduondoko ikasketak egiten aritzea.
- Kontuan hartuko da gizarte-mugimenduren batean, ikasle-elkarteren batean, gazte-elkarteren batean, auzo-elkarteren batean edo antzekoren batean sartuta egotea edo egon izana.
- Izen-emateen hurrenkera.

Kredituak lortzeko bete beharrekoak

Kredituak emateko izapideak UNEDek egingo ditu. Jardunaldiak amaitzen direnean eta behar diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen denean, UNEDek ziurtagiri bat emango die parte-hartzaileei.

Kredituak lortzeko bete beharrekoak hauek dira:

1. Jardunaldietara joatea (10 ordu)

Jardunaldien % 100era joatea martxoaren 9an eta 10an. Jardunaldietara joan izana ziurtatzeko, bertaratu izanaren kontrol-orri bat erabiliko da. Orri horretan sinatu beharko dute ikasle guztiak jardunaldietako atal bakoitza amaitzen denean.

2. Egin beharreko lanak (20 ordu):

Kalkuluen arabera, jardunaldiekin lotutako lan guztiak 20 ordu eskatuko ditu. Bi lan egongo dira: lehenengoa, jardunaldiak baino lehen, eta bestea, hauen ondoren, derrigorrezkoak izango direnak kredituak edo ostatu eta bidaietarako beka eskatu dutenentzako.

Zeregin hauek proposatzen dira:

Jardunaldiak hasi aurreko lana: lan hau banaka egin behar da.

- Mahai-inguruetan eta hitzaldietan parte hartuko duten hizlariek argitaratutako artikulua aurretik irakurtzea. Jardunaldien webgunean eskegita egongo dira.

Jardunaldien ondorengo azken lana

Jardunaldiak amaitu ondoren, behean proposatzen diren gaiak lantzeko beharrezkotzat jotzen den denbora emango da. Jardunaldien ondoren egin beharreko azken lanetarako, epemuga jarriko da, eta lanak posta elektronikoz helbide honetara bidali beharko dira: freest.saralegui@ecosfron.org

GARRANTZITSUA. Adierazi mezuaren gaia: Beste ekonomia bat martxan dago jardunaldietako azken lana + izen-abizenak

Hautatu proposatutako ildo hauetako bat:

- Mezu bat idaztea, jardunaldietako blogean argitaratzeko. Bertan, politiken koherentziaren ikuspegitik, jardunaldietan landutako gaiari buruzko gogoetak egin beharko dira (ikus, adibide gisa, “Políticas económicas centradas en la vida” artikulua). Post orokor bat izan daiteke, edo jarduera konkretu bati buruzkoa. Banaka egin beharko da lana.
- 3 eta 10 minutu arteko bideo bat grabatzea (hoberena, 5 minutukoa da), jardunaldiei buruzko eta nabarmendu beharreko gauzei buruzko azalpenak emateko. Banaka edo taldeka egin daiteke.

Economistas sin Fronteras.



Financia



Agencia Andaluza de Cooperación Internacional para el Desarrollo
CONSEJERÍA DE IGUALDAD Y POLÍTICAS SOCIALES



Colabora



Joan-etorriak eta ostatu-gastuak finantzatzeko beka eskatu nahi izanez gero bete behar diren baldintzak

- Espainiako edozein udalerritan bizitzea, Madrilgo Erkidegotik kanpo.
- Jardunaldietan izena ematea eta MgEk izen-emate hori onartzea (ikus onarpen-irizpideak aurreko atalean).
- MgEk ikasleari jardunaldietan ofizialki izena emanda dagoela jakinarazten dionean, ikasleak **motibazio-gutun bat** bidali beharko dio MgEri, jardunaldi hauetan zergatik parte hartu nahi duen azaltzeko. Posta elektronikoz jakinaraziko zaie onartuei gutun hori bidaltzeko epea, haien izen-ematea ofizialki onartu dela jakinarazi eta gero. Gutunak ezin ditu 1500 hitz baino gehiago izan, lerroartek 1,5ekoak izan beharko dute eta pdf formatuan aurkeztu behar da gutuna, ahal izanez gero. Motibazio-gutuna posta elektronikoz bidaliko da helbide honetara: freest.saralegui@ecosfron.org
- Gutunarekin batera, MgEk bidalitako inprimaki bat bete beharko da, joan-etorriak eta ostatu finantzatzeko behar diren datuekin. Inprimaki horretan, joan-etorrien gutxi gorabeherako kostua, garraibidea eta abar zehaztu beharko dira.

GARRANTZITSUA. Adierazi mezuaren gaia: Beste ekonomia bat martxan dago jardunaldietako motibazio-gutuna + izen-abizenak

Bekak emateko kontuan hartuko diren irizpideak:

- Gaiarekiko eta jardunaldietan parte hartzeko motibazioa (motibazio-gutuna).
- MgEko boluntario-talderen bateko kide izatea.
- Gizarte-mugimenduren batean, ikasle-elkarteren batean, gazte-elkarteren batean, auzo-elkarteren batean edo antzekoren batean sartuta egotea.
- Mugarik gabeko Ekonomialarien beste jarduera batzuetan (birtuala/aurrez aurrekoa) parte hartzeko prestutasuna.

Bekek estaltzen dituzten gastuak:

MgE beka bat ematen du (gehienez, 100 eurokoa) ostatua eta garraioa ordaintzeko. Kantitate hau gainditzen bada, kendura pertsonak berak ordaindu beharko du.

Pertsona bakoitzak erreserbatu bekarko du bidaia eta ostatua, baita horren aurre-ordainketa kudeatu ere. Gastua MgE-k ordainduko du kurtsoa izan ondoren (gehienez, jardunalditik 20 egunetara), hurrengo betebeharrak betetzen badira:

Ostatua

Ostatua pertsona bakoitza kudeatu beharko du. Gastua MgE-k ordainduko du kurtsoa izan ondoren (gehienez, jardunalditik 20 egunetara), hurrengo betebeharrak betetzen badira:

Ostatuaren faktura aurkeztea, hurrengo datuekin:

Economistas sin Fronteras.



Financia



Agencia Andaluza de Cooperación Internacional para el Desarrollo
CONSEJERÍA DE IGUALDAD Y POLÍTICAS SOCIALES

Colabora



- Faktura, Fundación Economistas sin Fronteras izenean.
- CIF: G-82316522
- Helbidea: Gaztambide Kalea, Lokal Baxua, 28015 Madril

Baita ere, ostatuan lo egin duen pertsonaren izen-abizenak agertu behar dira.

Dirua itzultzeko, beharrezkoa da originala bidaltzea Mugarik Gabeko Ekonomialarientzat postaren bidez, hurrengo datuak gutun-azalean idatzita:

- Fundación Economistas sin Fronteras
- ATTN: Freest Saralegui. OEM 17
- Helbidea: Gaztambide Kalea, Lokal Baxua, 28015 Madril

Norbaitek ez badu ostaturik behar, motibazio gutunarekin batera bidaltzen den posta elektronikoa azaldu beharko du.

Garraioa

Pertsona parte-hartzaileak egingo ditu jardunaldietan parte hartzeko egin behar diren gestioak eta joan-etorriko erreserbaren aurretiko ordainketak. Gastua MgEk *a posteriori* ordainduko du (jardunaldiak baino 20 egun geroago, gehenez ere), honako baldintza hauek betetzen badira:

- Turista-mailako autobuseko eta treneko joan-etorriak soilik finantzatu dira (esaterako, ez da finantzatu ALSAren “supra” kategorian).
- **Ez dira finantzatu autoz egindako joan-etorriak** (ez gasolinarik, ez kilometrorik, ez partekatutako autorik; esaterako, blablacar).
- **Autobus- edo tren-txartel osoa aurkeztu beharko da; hau da, txartelean datu hauek agertu beharko dira:** izen osoa, abizenak eta NAN. Txartelak formatu elektronikoa izan dezake (posta elektronikoz bidali daiteke MgEra), edo originala izan daiteke, kutxatilan erosi bada (posta arruntez bidali beharko da MgEra).

Norbaitek ez baditu egiaztagiriak, MgEk ezin izango ditu garraioak ordaindu.

Izena emateko epeak eta egutegia

Izena emateko azken eguna: 2018ko otsailaren 22a.

Izen-ematea esteka hauen bidez egingo da:

- UNEDeko online plataforma, esteka honetan:

<http://extension.uned.es/actividad/16393&codigo=JEEE>

Economistas sin Fronteras.



Financia



Agencia Andaluza de Cooperación Internacional para el Desarrollo
CONSEJERÍA DE IGUALDAD Y POLÍTICAS SOCIALES



Colabora



edo

- Jardunaldietako webgunea, “ikasleak” atalean: <http://ecosfron.org/otra-ekonomia-esta-en-marcha-2018/>

Onartuei jakinarazpena bidaltzeko azken eguna: 2018ko otsailaren 26a.

Beka eskatzen duten pertsonak motibazio-gutuna bidaltzeko azken eguna: 2018ko otsailaren 27a.

Bekadunei jakinarazpena bidaltzeko azken eguna: 2018ko otsailaren 28a.

Izen-ematea onartu den ala ez posta elektronikoz jakinaraziko da. Hautatutako pertsonen zerrenda bat egingo da, eta itzarote-zerrenda bat ere bai. Itzarote-zerrendako ikasle gehiago onartzen joango dira izen-emateen hurrenkeran, baldin eta hautatutako pertsonen arteko batek jardunaldietan parte hartzeari uko egiten badio.

Economistas sin Fronteras.



Financia



Agencia Andaluza de Cooperación Internacional para el Desarrollo
CONSEJERÍA DE IGUALDAD Y POLÍTICAS SOCIALES



Colabora

